

Altza

# Atletismoa Gipuzkoan jaio zenekoa

Uztailaren 31n 90 urte beteko dira, Jolastokieta elkartearen ekimenez, Altzan sona handiko atletismo txapelketa bat jokatu zenetik. Askorentzat hura izan zen Gipuzkoan jokatu zen lehen atletismo txapelketa.

Rebeka Piñeiro

**G**ipuzkoako Atletismo Federaziokoek argitu digutenez, beharbada Iru-

nen jokatu ziren lehen atletismo txapelketak, 1907 eta 1909 bitartean. Baina ez dago ia daturik. Agian, horrexegatik, askorentzat Jolastokieta

elkarateak 1914ko uztailaren 31n antolatutako proba sorta izan zen Gipuzkoan jokaturako lehen atletismo txapelketa. Egia esan, txapelketa hari buruzko informazio askorik ere ez dago, baina garai hartako egunkarietan zenbait datu aurkitu ditugu. Esate baterako, parte hartu zuten taldeen zerrenda: Jolastokieta bera eta Donostiako Realta eta Esperanzarekin batera, Errenteriá, Irun, Eibar, Bergara, Tolosa eta Miarritzeko taldeetako atletak lehiatu ziren. 75 bat lagunek eman zuten izena. Probak ikusteko sarrera merkeenak 0,50 pezetatan jarri zituzten salgai, eta garestienak, pezetatan.

pide izan zituen. Hauxe kazetariaren zalantza: Madrilen eta Bartzelonan jokaturako txapelketetako markak onduko ote ziren.

## Etxekoak nagusi

Txapelketan, etxekoak, Jolastokieta elkaratekoak, izan ziren nagusi. 500 metroko lasterketan Mendizabal helmugaratu zen lehena. Disko jaurtiketan Luciano Urkijo nagusitu zen. Luzera-jauzian Elosegik irabazi zuen —txalo zaparrada galanta jaso zuen La Voz de Guipuzcoa egunkariaren arabera—, eta pisu jaurtiketan Iturain nagusitu zen. Etxekoak alde batera utzita, Miarritzeko atletak ibili ziren indartsuen. Daliere, adibidez, pertika jauzian gailendu zen.

Nabarmendu behar da garai hartan ez zegoela ez Donostiako ez Gipuzkoako atletismo federaziorik. Donostiako 1915eko apirilean sortu zen, eta Gipuzkoakoa urtebete beranduago. Jolastokieta elkarateak bien sorreran esku hartu zuen.



Kurxa Fototeka

## Intxaurrondo



### Zorionak Julia!

Asteartean, uztailak 27, Intxaurrondoko Txara I zahar egoitzan dagoen Julia Rodriguez Gonzalezek 100 urte bete zituen eta urtemugaren haritik, omenaldi beroa jaso zuen. Alaitu abesbatzak zenbait kanta eskaini zizkion Juliari, Txara I-eko zuzendaritzak eta Foru Aldundiak opari bana eman zioten eta ondoren, hamaketakoa egin zuten. Julia Burgoiko Tamaron herrian jaio zen,

28 urterekin ezkondu eta lau alaba izan zituen. Nekazari lanak alabean zaintzarekin uztartu zituen eta duela 20 urte Donostiarra etorri zen. Julia 2000. urtetik dago Txara I-ean. Zahar egoitzako arduradunek diotenez, oso emakume jatorra da eta hasieratik ederki moldatu zen zahar egoitzara. Zorionak Julia eta urte askotarako!

## Liburutegia kalean

Uztailaren bigarren hamabostaldian, Larraxoko haur liburutegiko arduradunek ekimen bixia eraman dute aurrera. Udan gaudela aprobetxatuz, aulki eta mahai batzuk jarri dituzte liburutegiaren kanpoaldean.

Larraxokoa berez, haur liburutegia bada ere, helduek ere ederki ballatu dituzte kanpoan jarritako mahaiak egunkariak irakurtzeko. Abuztuan liburutegia itxia egongo da. Oporretatik bueltan, litekeena da berriz ere aulkiak eta mahaiak zenbait astez kanpoaldean jartzea.

